

Julio Iglesias aske



# «Sasoi berean irtetea izan da nire erronka»

Julio Iglesias umoretsu eta irribarretsu agertu zen atzo prentsaurrekoan 117 egunez bahitua izan ondoren

**J**ulio Iglesias Zamora irribarretsu, alai eta umoretsu agertu zen atzo arratsaldean komunikabideen aurrean, 117 egunez bahituta izan ondoren. Denbora honetan, «sasoi berean edo hobean» irtetea izan da bere erronka, berak azaldu zuenez. Familiarekin eta lankideekin bizi zen girotik bat-batean kendu bazuten ere, kolpez murgiltzeko asmoa agertu zuen.

PELLO URZELAI / DONOSTIA

Larriunetik ondo atera den ueste osoa agertu zuen Julio Iglesias Zamora 117 egunez bahituta izan den ingeniariak prentsaurrekoan egin zuen agerraldian. Lehen momentutik egoeraz jabetu zen eta «erronka» gisa «sasoi berean edo hobean irtetea» jarri zion bere buruari. «Horrelako egun bat etorriko zela banekien, eta ondo erantzun behar nuela banekien», esan zuen Iglesiasek askatze ondoko prentsaurrekoa aipatuz.

Bizi izandako esperientzia «oso gogorra» izan dela adierazi zuen Julio Iglesiasek, baina oroi-men txarrik ez balu bezala umorez egin zuen gertatutakoaren kontakizuna. Stockholm sindromea ote zuen galdetu ziotenean, ziurtasunez erantzun zuen: «Inolaz ere, hemen egon behar nuen, hori zen nire erronka, nire jendeari, nire familiarekin eta nire lankideekin aurpegira begiratu behar nien irtetean, argi nuen nire bizitza ez zutela ukituko».

«Momentu txarrik pasatzen nituen, baina argi nuen ondo bukatu behar nuela, azken astean bazirudien irteera gertu zegoela eta 'E' eguna prestatzeari ekin nion», esan zuen beste une batean.

## EZOHIZKO IKUSMINA PRENTSAURREKOAN

Arratsaldeko seiak eta hamarreen heldu zen Julio Iglesias Zamora Donostiako Costa Vasca hotelera. Ehundaka kazetari zituen zain. Leku guztietakoak, batzuk kanpoaldean eta beste batzuk prentsa gelan. Bertan ikusi enpresako langileak ere zituen zain eta sartu zenean txaloka hartu zuten.

Antonio Elosegik familiaren izenean entitate, erakunde, alderdi eta herritarrei eskerrak eman ondoren, Julio Iglesiasek hitza hartu zuen bahiketaren kontakizuna egiteko. Hasierako bi egunetan, «terrore» sentsazioa izan zuela baina gaintitu zuela esan zuen, «garabi handietan ibiltzen denean, lurretik 15 edo 20 metro-



Julio Iglesias irribarretsu eta hizlari agertu zen atzo komunikabideen aurrera.

EDURNE KOCH

tara, ordubete edo bi ordu lanean jardun ondoren hutsune sentsazioa gaintitzen den bezala».

Bere bizimoduarekin, horrelako gauza bat berari ezin zitzaiola gertatu uste zuela agertu zuen, eta gertatu zitzaionean «Julioiogatik» ez zela pentsatu zuen. «Honek balio du txantaia enpresari egiteko», gogoratu zuen.

Egoerari aurre egiteko aktibitate programa bat prestatu zuen, enpresa gizona dela argi utziz.

## HIRU BAHITZAILE, GIZONEZKOAK

Bahitzaileei buruz ez zuen zehaztasun handirik kontatu. Hiru pertsona ziren, burua estalita eramaten zuten eta gizonezkoak ziren,

Iglesiasek kontatu zuenez.

Beraiengandik jasotako tratua «nahikoa eta zuzena» izan zela adierazi zuen, inkomunikazioa tortura dela agertu ondoren. «Inork ez du merezi horrelako gizalege gabeko egoera», esan zuen prentsaurrekoan beste une batean.

Bahitzaileekin eztabaidan ari-

tu ote zen galdetu ziotenean, el-karrizketa haiek ezin zirela «politikotzat» jo esan zuen, eta bahitzaileek «joko gutxi» ematen zutela gaineratu.

Non ote zegoen jakiterik ez zuela esan zuen, iritsi eta irten lotan egin baitzuen.

Askatu eta ondoko «bizipe-nak» hitzez ezin zituela adierazi esan zuen behin baino gehiagotan, emozioari utsiz. Txantxetarako gogoia ere izan zuen, eta, beste zenbait esaldiren artean, «ez diot inori gomendatzen niri ilea moztu didan pelukeroa», esan zuen bere ile motza ukitzen zuten bitartean.

Askatasunaren zentzazioa «zoragarria» izan zen, Julio Iglesiasen esanetan. «Arbustuen artean esnatu nintzen, eta espazio zabalean egotea eta arnasa hartu ahal izatea gauza handia izan zen», kontatu zuen. Ilargi bete zela eta Arraten zegoela ikusi zuenean «etxean nago» pentsatu zuen.

Etxera zarata handirik gabe iritsi nahi zuelako, lehenik bere emazteari deitu beharrean lagun bati deitu zion bere bila joan zedin. Etxera bueltatzeko «bitartekoa» ziurtatuta zuenean orduan deitu zuen etxera. Jon bere semeak hartu zuen, baina ez zuen guztiz ezagutu. «Ezta nire etxean ere ezagutzen naute», pentsatu zuen.

## «Herriak ez du nahi indarkeria»

P.U. / DONOSTIA

■ Bahitzaileentzat eta ETArrentzat mezu bat agertu eta eskaera bat egin zuen Julio Iglesiasek. «Erakundeari zer esan? Herriak esan duena, erantzuna kallean egon da, erantzuna argia izan da», esan zuen ETARI zer esango zenioke lehendabizikoz galdetu ziotenean. Bigarrenez galdetu ziotenean, honako hau erantsi zuen: «Herriak erakutsi du ez duela indarkeriako bitartekorik, parlamentua eta erakundeak badaude eta bitarteko horiek erabili behar dira beharrezkoa bada gauzez baldin bada ere, enpresetan askotan gertatzen den bezala, gizatasunik gabeko metodo horiek ez dute balio».



Indarkeria eta gatazka amaitzeko itxaropena ote duen galdetuz beste honako hau erantzun zuen: «Nire gatazka pertsonala amaitu da, bestea beraiei galdetu». Askatasunaren eta bakearen sinboloa bihurtu dela esan zion kazetari batek. «Lehenengoa izatea gustatu litzateke, baina herria hobeto joateko balio badu onartuko dut».

Eskaerari dagokionez, bahiketean zehar idatzi dituen oharrak bueltatzea eskatu zion ETARI. Ohar horietan, bere emaztearen-tzako gutunak zein enpresako proiektuak idazten zituen, Iglesiasek kontatu zuenez. «Egile eskubideak» kontuan hartzea eskatu zuen ironiaz. Bere erantzuna itzultzeko gogoia ere azaldu zuen.